



PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Proiektu honetarako sortu dugun enpresa surfaren munduari lotuta dago. Gure ideia nagusia, elbarritasun edo desgaitasunen bat duten pertsonentzako klaseak eta pertsonalizatutako oholak eskeintzea da. Hala ere, nahiz eta elbarritasunik edo desgaitasunik ez izan, gure eskolaz gozatzeko eta oholak erosteko aukera izango dute.

Gizartean baztertuak izaten direnengan pentsatuz sortu dugu enpresa hau. Gaur egungo gizarteak pertsonak fisikoki eta mentalki direnagatik asko mugatzen dituelako. Gure pentsamendua ez da gizarte honetako gehiengoarena bezala. Gure ustez, gure gorputzak fisikoki edo mentalki mugak ezarri arren, beharrezko laguntza eta baliabideekin muga horiek haustea posible da.

Muga hauek gainditzeko, gure surf eskolan prestatuta dauden monitorea izango ditugu, bezeroek arazorik gabe surfaz gozatu dezaten. Horretaz gain, fabrika oholak elbarritasun eta desgaitasun bakoitzaren arabera pertsonalizatuko ditugu, bezeroek esperientzia onena izan dezaten.